

EUSKAL AEko TXIKIZKAKO MERKATARITZAREN INDIZEA (BMIT). 2014/IV

Euskal AEko txikizkako sektorearen salmentak %1,3 gehitu ziren 2014ko laugarren hiruhilekoan

Gasolindegia sartu gabe, salmentak %1,2 gehitu ziren

Eustaten datuen arabera, 2014ko laugarren hiruhilekoan, Euskal AEko txikizkako merkataritzaren sektorean salmenta nominalak %1,3 gehitu ziren, aurreko urteko hiruhileko beraren aldean. Gasolindegia sartu gabe, sektorearen salmentak %1,2 gehitu ziren urte artekoan.

Aurreko hiruhilekoaren aldean, salmenta-indizeak %1,2 nominala egin du hobera, urtaro-eraginak kenduta.

1. taula. Euskal AEko txikizkako merkataritzaren indizea. Urte arteko eta hiruhile arteko aldakuntza-tasa (p). IV/2014

	UNEKO PREZIOAK		PREZIO FINKOAK	
	t / t-4	t / t-1	t / t-4	t / t-1
INDIZE OROKORRA lurralde historikoaren arabera				
Euskal AE	1,3	1,2	2,0	0,6
Araba	3,9	2,0	5,2	2,3
Bizkaia	0,7	2,4	1,2	0,9
Gipuzkoa	1,0	-0,8	1,8	-0,7
INDIZE OROKORRA sektorearen arabera				
Elikagaiak	0,0	2,4	-0,2	1,8
Elikagaietan espezializatuta	-0,7	-0,1	-1,3	-0,9
Ez espezializatuta, elikagaidunak bereziki	0,5	2,4	0,5	1,8
Beste produktuak	2,2	1,3	2,7	1,4
Pertsonen hornikuntzan espezializatuta	2,2	-1,1	2,0	-2,4
Etxearen hornikuntzan espezializatuta	7,4	3,6	9,2	3,2
Beste kontsumo ondasun batzuetan espezializatuta	-1,6	2,7	-1,3	-0,2
Ez espezializatuta, gainerako produktudunak bereziki	-0,1	0,0	0,4	-0,7
Automoziorako erregaia	1,3	0,6	8,6	3,4
SALMENTEN INDIZEA zerbitzugunerik gabe	1,2	1,8	1,4	1,5
ENPLEGU INDIZEA				
Euskal AE	-0,9	-0,5		

t / t-4 Urte arteko aldakuntza. Egutegiaren eragina zuzendutako datuak.

t / t-1 Hiruhile arteko aldakuntza. Datu desestazonalizatuak.

Iturria: Eustat. Euskal AEko txikizkako merkataritzaren indizea (BMIT)

Elikagaien salmenta nominalak lehengoan (%0,0) 2014ko laugarren hiruhilekoan; gainerako produktuetan %2,2ko gehikuntza; automobilgintzarako erregaian %1,3koa, beti ere 2013ko aldi beraren aldean.

Elikagaien txikizkako merkataritzan espezializatua %0,7 jaitsi zen; elikagaiak nagusi diren ez-espezializatuan %0,5 gehitu. Gainerako produktuetan, pertsonaren ekipamenduan espezializatuan %2,2 gehitu eta etxeko ekipamenduan %7,4;

kontsumoko beste ondasunetan espezializatuan %-1,6. Gainerako produktuak nagusi diren ez-espezializatuan %-0,1.

Aurreko urteko hiruhileko beraren aldean: Bizkaian %+0,7; Gipuzkoan %+1,0; Araban %+3,9.


Prezio finkoetan, txikizkako merkataritzaren salmentak %2,0 gehitu ziren laugarren hiruhilekoan.

Txikizkako salmentek -gasolindegia sartu gabe- %1,4ko gehikuntza erreala izan zuten aurreko urteko hiruhileko beraren aldean.

2014ko laugarren hiruhilekoan Euskal AEko txikizkako merkataritzaren salmenta errealean %0,6ko gehikuntza dugu hirugarrenaren aldean eta urtaro-eraginak kenduta.

Elikagaien txikizkakoan jaitsiera erreala %0,2; gainerako produktuetan %2,7ko gehikuntza erreala, 2013ko hiruhileko beraren aldean; automobilgintzarako erregai-salmentetan %8,6ko gehikuntza.

Euskal AEko txikizkako merkataritzaren indizearen urte-arte aldakuntza-tasa (%). Prezio finkoak



Iturria: Eustat. Txikizkako merkataritzaren indizea

Elikagaien txikizkakoan, urte artean %-1,3 dugu espezializatuan ; elikagaiak nagusi diren ez-espezializatuan %+0,5. Kontsumoko beste ondasunetan espezializatuan %-1,3. Gainerako sektoreetan, hazkundeak. Pertsonaren ekipamenduan espezializatuan

%2,0 gehitu, Etxeko ekipamenduan %9,2; Gainerako produktuak nagusi diren ez-espezializatuan %0,4.

Hiru lurraldeetan gehikuntzak salmentetan termino errealetan, aurreko urteko hiruhileko beraren aldean: Bizkaian %1,2, Gipuzkoan %1,8, Araban %5,2.

Euskal AE osoan, 2014ko hirugarren hiruhilekoaren aldean, txikizkako sektorean landunen kopurua %0,5 murriztu zen 2014ko laugarren hiruhilekoan.

Urteko balantzea

Urte osoan, txikizkako merkataritzaren salmentek %0,4ko gehikuntza nominal metatua izan dute. Gasolindegia sartu gabe, gainerakoen salmentetan %0,7ko gehikuntza, 2014ko datu metatuetan 2013koen aldean.

Termino errealetan, sektorea osorik %0,5 gehitu da; berdin (%0,5) gasolindegirik gabe.

Urte osoan, tasa nominaletan: Gipuzkoan %+1,3, Araban %+1,3, Bizkaian %-0,4. Prezio finkoetan: Araban %+1,4, Gipuzkoan %+1,5, Bizkaian %-0,3.

Euskal AEn, 2014an, aurreko urteko batez bestekoaren aldean, txikizkako merkataritzako enpleguaren murrizketa: %1,2.

2. taula. Euskal AEko txikizkako merkataritzaren indizea. Urte arteko aldakuntza-tasa

	UNEKO PREZIOAK			PREZIO FINKOAK		
	2011	2010	Δ%	2011	2010	Δ%
INDIZE OROKORRA lurralde historikoaren arabera						
Euskal AE	94,9	94,5	0,4	88,0	87,5	0,5
Araba	98,2	96,9	1,3	88,9	87,7	1,4
Bizkaia	94,0	94,3	-0,4	87,8	88,0	-0,3
Gipuzkoa	94,8	93,6	1,3	87,8	86,5	1,5
INDIZE OROKORRA sektorearen arabera						
Elikagaiak	93,2	96,0	-2,9	86,6	88,9	-2,7
Beste produktuak	93,7	90,4	3,6	89,2	86,7	3,0
Automoziorako erregaia	108,0	109,9	-1,8	86,6	85,9	0,8
SALMENTEN INDIZEA zerbitzugunerik gabe	93,5	92,8	0,7	88,1	87,6	0,5
ENPLEGU INDIZEA						
Euskal AE	90,1	91,2	-1,2			

Iturria: Eustat. Euskal AEko txikizkako merkataritzaren indizea (BMIt)

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa zerbitzua: servicioprensa@eustat.es Tel.: 945 01 75 62

Euskal AEko Txikizkako Merkataritzaren Indizearen gaineko prentsa-ohar gehiago

Euskal AEko Txikizkako Merkataritzaren Indizearen gaineko datu-bankua